



**AGINDUA, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO
SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
NATURA-ONDAREA KONTSERBATZEKO LEGEAREN
AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI EKITEA ONARTZEN
DUENA.**

Bere garaian, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko ekainaren 30eko 16/1994 Legea onartzea emandako aurreneko urratsa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eta aginte publikoen gai horren gaineko kezkarri erantzuteko, zeina gero eta handiagoa baitzen. Garai hartan lege hura aitzindaria izan zen, eta zenbait arlotan naturaren kontserbazioaren politikaren buru, besteak beste, natura baliabideen, naturagune babestuen, faunaren eta floraren antolamenduari dagokionez.

Beharrezkotzat jo zen natura baliabideak, funtsezko prozesu ekologikoak eta gure lurraldeko paisaiaren edertasuna kontserbatzeko sistema bat bateratzea, garapen integratua egiteko berme gisa, etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe.

Urteetan zehar 4 aldiz ere aldatu zen lege hori, 2/1997, 1/2010, 2/2011 eta 2/2013 Legeen bidez, harik eta 2014an apirilaren 15eko 1/2014 Legegintza-Dekretua onartu zen arte, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legea onartu zenetik 34 urte igaro direla, eta denboran zehar zenbait erreforma egin zaizkion arren, lege horrek aplikatzeko arazoak ditu, batez ere ingurumenari buruzko lege-corpus zabala dagoelako, zeina Europar Batasunak bultzatu eta Estatuko oinarritzko arauetara eraman baitu natura-ondarearen babesa eta kontserbazio-arloari dagokionez.

Horrenbestez, Autonomia Estatutuaren 11. artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari onartzen dizkion eskumenak gauzatze aldera, eta azaroaren 25eko 27/1983 Legean ezarritakoaren arabera (Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen Arteko Harremanen gainekoa da lege hori), egokitzen jotzen dugu Natura Kontserbatzeari buruzko arau berria egitea, ekainaren 30eko 16/1994 Lege hura ordezkatzeko. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika berri baten oinarriak finkatu behar dira, garai honetan pilatutako esperientziaz abiatuta, kontserbazioari dagokionez dauden erronka aldakorrei eta gizarte-eskaerei aurre egin ahal izateko.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak jasotako preskripzioetara egokituko da lege-proiektu hau egiteko eta izapidetzeko prozedura.



Aipatutako abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ezartzen du, 4.1. artikuluan, proiektatutako arauzko xedapenaren gaiaren gaineko eskumena duen sailburuaren agindu baten bidez hasiko dela prozedura.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak dauka aipatu prozedurari ekiteko eskumena, halaxe xedatzen baitu Lehendakariaren 24/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko, eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Dekretua, 2016ko azaroaren 26koa).

Azaldutakoa aintzat hartuta, eta abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 5.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, prozedurari ekiteko Aginduak izan beharreko edukia espezifikatzen baitu, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legearen aurreproiektua egiteko prozedurari ekiteko agintzea.

Bigarrena.- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza izendatzea hura izapidetzeko Zerbitzu Zuzendaritzarekin lankidetzan.

Hirugarrena.- Proiektua agindu honen eranskinean jasotako premisen arabera egingo da, abenduaren 22ko 8/2003 Legean aurreikusitako moduan (xedapen orokorrak egiteko prozedurarena).

Laugarrena.- Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko erabakiari jarraikiz, aurretiko kontsultaren izapidea egitea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikuluan ezarria), egoitza elektronikoa (LEGEGUNEA eta Irekia).

Vitoria-Gasteiz

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua

Sin.: IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ
(elektronikoki sinatuta)

Eranskina. Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legearen aurreproiektua egiteko bete beharrekoak.

1.- Arauaren helburua eta xedea.

Arauaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko natura-ondarea babestea, kontserbatzea, kudeatzea, modu jasangarrian erabiltzea, lehengoratzea eta hobetzea.

Hau jotzen dugu natura-ondareztat: naturaren ondasun eta baliabide-multzoa, biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen iturria dena, balio garrantzitsua daukana paisaiaren, zientziaren edo kulturaren aldetik, eta autonomia-erkidegoko lurraldeko lurzorua lur- eta itsas-eremuetan, lurpean eta airean dagoena.

Hona lege honen helburuak:

- a) Funtsezko prozesu ekologikoen eta oinarrizko bizi-sistemen jarraipenari eustea, ekosistemen zerbitzuak babestuz.
- b) Dibertsitate biologikoa eta geologikoa kontserbatzea eta lehengoratzea, bai eta gaitasun produktiboa ere.
- c) Natura-ekosistemen kontserbazio-egoera ona babestea, bai eta ondare geologikoaren eta paisaiaren barietatea, singularitasuna eta edertasuna ere.
- d) Dibertsitate genetikoaren eta basafloa- eta basafauna-populazioen kontserbazio egoera ona bermatzea.
- e) Natura-ondarearen ondasunen eta baliabideen erabilpen jasangarria bermatzea, bereziki basoko espezieena eta ekosistemena, biodibertsitatearen galera netoa saihestuz.

2.- Haren bideragarritasun juridikoa eta materiala aztertzea.

1. Bideragarritasun juridikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 11.1 a) artikulua xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena dauka ingurumen- eta ekologia-gaietan Estatuko oinarrizko legeria garatzeko eta oinarrizko legeria hori Autonomia Erkidegoaren lurraldean betearazteko.

Orobat, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen Arteko Harremanen gaineko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6. artikulua araberak, autonomia-erkidegoko erakunde erkideen eskumena da Estatutuaren araberak autonomia-erkidegoari dagozkion gaiei buruz legeak egitea eta betearaztea, baldin eta estatutu horretan bertan edo haren ondorengo beste lege batzuetan lurralde historikoetako foru-organoei ez

zaizkie onartzen edo esleitzen. Edonola ere, artikulua horretan gehitzen denez, Legebiltzarrak baino ez dauka lege-mailako arauak emateko ahalmena.

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen Arteko Harremanen gaineko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikulua araberak, lurralde historikoetako foru-organoei dagokie erakunde erkideen naturagune babestuen administrazioari buruzko legeak betearaztea.

Azaldutako arauen araberak, eta aintzat hartuz zer gai arautuko duen lege berriak, hau da, Natura Ondarea Kontserbatzekoa, zeina egiten hasteko agintzen baita agindu honen bidez, autonomia-erkidegoko erakunde erkideen eskumena da Legebiltzarraren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legea onartzea.

Eskumen hori gauzatze aldea, ekainaren 30eko 16/1994 Legea onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarea Kontserbatzekoa, eta garai hartan Euskal Autonomia Erkidegoan kontserbazioari buruko arau-esparru bateratua ezartzea ekarri zuen.

Gai hori, dena den, gizarteak berak eskatzen dituen eta goraka doazen premietara egokitzen doa etengabe, eta, horren ondorioz, azken urteotan ekainaren 30eko 16/1994 Legearen gaiari berari buruzko zenbait arau-testu onartu dira, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzkoak.

Hala, bada, ekainaren 30eko 16/1994 Legea onartu zenetik, Estatuan eta Europar Batasunean zenbait arau-xedapen sartu dira indarrean, besteak beste, gai hauek arautze aldera: aldaketa klimatikoaren aurkako borroka, Natura Ondarea eta Biodibertsitatea, basa-hegaztien kontserbazioa.

Horren ondorioz, behar bezala justifikatuta geratzen da arau berri bat egiteko beharra, eremu juridiko gaurkotua ezartzeko, eta autonomia-erkidego honen eremuan ingurumenari dagokionez dauden funtsezko kontuei ekiteko.

2. Bideragarritasun materiala.

Aipatu den bezala, naturagune babestuen eta fauna- eta flora-espezien kontserbazioa arautu nahi da lege-aurreproiektuan; horixe da haren eremu materiala.

Arau berrian hau guztia jasoko da: EAEko kontserbazio-politika zuzendu behar duten printzipioak; pertsonen eskubideak eta betebeharrak; administrazio publiko bakoitzari dagozkion eskumenak eta haien arteko koordinazio-mekanismoak eskumen horiek betearazteko; informazioa jasotzeko, kontu publikoetan parte hartzeko eta ingurumen-justizia eskuratzeko eskubideak erabat baliatu ahal izatea bermatzea.

Haren kontu berritzaileen artean dago Natura Ondarea Babesteko Euskal Estrategia zenbait helburu, jarraibide eta ekintza ezarriko dituen tresna

espezifikoko gisa sartzea, EAeko administrazio publikoek natura-ondareari buruz ezartzen dituzten politikak bideratze eta koordinatze aldera, politikok ondare hori babesteko, kontserbatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko, kudeatzeko, hobetzeko eta lehengoratzeko izango direlarik. Haren asmoa da, halaber, natura-baliabideak antolatzeke planak onartzeko bete beharreko administrazio-izapideak bizkortzea edo organo aholkulariak Ingurumenerako Aholku Kontseiluan batzea.

Lege berriak, orobat, natura-gune babestuen tipologia aldatuko du eta "natura-monumentua" eta "paisaia babestua" figurak sortuko ditu, eta modu horretan estaldura handiagoa emango die orain arte legean sartzen ez ziren guneei.

Amaitzeko, Natura Ondarea Kontserbatzeko Euskal Funts Publikoa sortzen du, ulertzen baitu diruz lagundu behar dela natura-ondarearen babesa, eta kontu hori eztabaidagai da ere 2000 Natura Sarearen kasuan. Aipatutako funtsa Eusko Jaurlaritzari atxikitzen zaio, eta hauek guztiak dira hura elikatzeko iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan horretarako eta berariaz ezartzen diren ekarpenak; ehizan aritzeko gaitasun-azterketa egiteko ordaindu beharreko tasak; lege honen arabera ezarritako zehapenak, kalte-ordainak eta isun hertsatzaileak, eta, hala badagokio, Europar Batasunak natura-ondarea babesteko egiten dituen ekarpenak. Horrez gain, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintza-Dekretuan jasotako diziiplina-araubidea gaurkotzen du.

Antolamendu juridikoan izango duen eragina.

Lege-aurreproiektuak apirilaren 15eko 1/2014 Legegintza-Dekretua indargabetuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren II. Tituluaren I. Kapituluaren ere.

Lege Aurreproiektuaren xedea kontuan hartuta, aurreikusten da beharrezkoa izango dela ondoren hura garatzeko erregelamendu-arauak onartzea.

Proiektatutako arauaren eragina aurrekontuetan.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3. artikulua arabera, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, non, egingo den arauaren aplikazioak ekarriko duen kostuaz gain, haren aplikazioak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan izango duen eragina ere aztertuko baitira. Orobat, arauak beste administrazio batzuetan eta partikular batzuetan izango duen inpaktuaren analisia ere sartuko da memoria horretan.

Memoriak, orobat, erantzun beharko dio arauak ekonomian orokorrean izango duen inpaktuari buruz egin beharreko azterketari, abenduaren 9ko 20/2013 Legean eta ekainaren 28ko 16/2012 Legean ezarritakoaren arabera

(merkatuaren batasuna bermatzekoa eta ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzekoak, hurrenez hurren: 2013ko abenduaren 10eko BOEn eta 2012ko uztailaren 6ko EHAA argitaratuak).

Zehapen-araubidea ere aurreikusten da, hauste administratiboen motak jaso eta zigor ekonomikoak ekarriko duena, hau da, diru-sarrerak jasoko dira, eta haiek ere kontuan hartu beharko dira.

5.- Beharrezko izapideak eta txostenak.

Arau-xedapenaren testua idazteko, agindu honetan esandakoa hartuko da oinarri, kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukera guztiak, bai eta, hala badagokio, aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko eskatuko diren kontsulten eta txostenen emaitzak ere.

- ✓ Administrazio honetako gainerako sailei eta Gobernuaren eragile juridikoei jakinaraziko zaie sustatutako araugintza-ekimena, Hasierako Agindu hau sartuz LEGESAREA lankidetzarako esparruan.
- ✓ Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari eskatu zaio Lege Aurreproiektuaren testua idazteko. Araubide onaren printzipioak hartu beharko dira hura idazterakoan (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 8/2003 Legearen 6. artikulua). Errespetatu beharko dira, orobat, 27/2006 Legearen 16. artikulutik eta Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 5. artikulutik ondorioztatzen diren betebeharrak, artikulua horietan ezartzen baita, hurrenez hurren, ingurumen-arauen lanketan interesa duen publikoaren partaidetza erreala eta efektiboa bermatu behar dela, eta udalerriek aktiboki parte hartu behar dutela beren eskumenetan zuzenean eragiten duten autonomia-arauak egiten, besteak beste, ingurumenaren defentsari eta garapen iraunkorrari dagozkionak.
- ✓ Aurreproiektua Gobernuaren 2013ko maiatzaren 14ko erabakian aurreikusitakoaren arabera idatzi beharko da, haren bidez onartzen baitira xedapen orokorrak ele bietan egiteko neurriak, xedapenok lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma dutela ere.
- ✓ Arau-proposamenarekin batera, memoria hauek aurkeztuko dira: justifikatzekoa eta ekonomikoa; azken horretan arauak enpresen eraketan, abiapuntuan eta funtzionamenduan duen inpaktuaren ebaluazioa ere sartu behar da.
- ✓ Aurreproiektua idazten den bitartean, aldi berean, generoaren arabera inpaktuaren txostena egingo da, Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean hartutako erabakiaren arabera, zeinaren bidez “genero-eragina aurretiaz ebaluatu eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen diren”.
- ✓ Behin lege-aurreproiektua idatzi eta gero, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren alde aurreko onarpena jaso beharko du.
- ✓ Ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1. artikulua arabera, ekainaren 2ko 8/2016 Legeak aldatuta, xedapenaren testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da.

- ✓ Aldez aurreko onarpenaren agindua, eta, harekin batera, araugintza-proiektua, LEGESAREA lankidetzaz-esparruan emango dira argitara.
- ✓ Lege-aurreproiektua Euskal Autonomia Erkidegoko foru-diputazioen eta udalen entzunaldi-izapidepean jarriko da, zuzenean edo EUDELen bidez.
- ✓ Horrez gain, herritarren partaidetzarako faseari ekingo zaio, non sartuko baitira informazio publikoko aldia eta kontsulta-aldiak uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 23. artikulua araberako interesdunak diren pertsona juridikoentzat (ingurumen-gaiei dagokienez informaziora heltzeko, kontu publikoetan parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskukideei buruzkoa da aipatu legea).

Prozedura izapidetzean, aginduzko txosten hauek eskatuko dira:

- a) Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoaren txostena.
- b) Emakunderen txostena.
- c) Kultura Saileko Herri Administrazioen Hizkuntza Normalizaziorako Zuzendaritzaren txostena.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordea.
- e) Ingurumenerako Aholku Kontseilua.
- f) Naturzaintza
- g) Landaberri
- h) Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseilua.
- i) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizpena
- j) Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena.
- k) Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena.
- l) Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikorako Bulegoa
- m) Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena

6.- Proposatutako erregulazioaren edukia

Arauka alderdi hauek arautuko ditu, gutxienez:

- a) Herritarren eskubideak eta betebeharrak.
- b) Eskumen- eta antolamendu-araubidea.
- c) Natura Ondarea ezagutzeko, planifikatzeko eta babesteko tresna orokorrak. Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarearen inbentarioa, natura-baliabideak antolatzeko planak, Natura Ondarearen egoerari buruzko txostenak eta hartu beharreko neurriak sartzen dira.
- d) Naturagune babestuak. Tipologia, deskribapena, arautzea.
- e) Flora eta fauna basatien espezieen babesa.
- f) Ikuskaritza eta zehapen-araubidea.

7.- Europar Batasunaren aurreko izapideak.

Europar Batasunean ez da proiektuari buruzko izapiderik egin behar, proiektuak ez duelako direktibarik eskuz aldatzen, ez duelako Europako araurik garatzen,

eta ez duelako eragiten estatu kideen arteko lehian. Diru-laguntzen programarik edo deialdirik ere ez du jasotzen.

Arau-testua ele bitan idazteko metodoa.

Arau-testua ele bitan egon dadin, honela jokatu da Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 8.1 artikulua xedatu duena betetzeko: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko IZO-Itzultzalpen Zerbitzu Ofizialak itzuliko du gaztelainatik euskarara.